

# FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jarduerak, edozein negozio eredu aurrera eramateko beharrezkoak dira zenbait jarduerak burutzea: balorezko proposamena garatzeko, bezeroarengana iristeko, bezeroarekin harremanetan jartzeko eta diru sarrerak lortzeko.

Funtsezko jarduerak zenbait taldetan sailkatzen dira: Produkzioa, arazoak eta plataforma edo sare jarduerak.

Produkzioa ez da izango gure jarduera oinarria. Beste enpresen produktuekin hornituko garelako. Hau da, beste enpresek egindako produktuak gure webgunean eskainiko ditugu eta produkzio jarduerarik ez da beharrezkoa izango gure enpresan.

Arazoak konpontzeko hianbat zerbitzu erabiliko ditugu. Telefono linea bat eskuragai jarriko dugu, gure produktuak kontsumitzen dituztenentzat. Honek, abantaila handiak eragingo ditu gertutasunean eta komunikazioan. Seguru bat kontratatzeko aukera ere emango diegu, garantia baten antzekoa produktuen edonolako arazoetatik babesten duena.

Plataforma edo sare jarduerak oso garrantzitsuak izango dira gure enpresan, webgune bat irekitzeko ideia dugulako eta hor produktuen eskaintza egingo dugu. Horregatik, plataformaren gestioa, etengabeko mantenua eta plataformaren promozionatzea beharrezkoa da. Orduan, nabarmendu behar dugu jarduera honen garrantzia, hau baita gure enpresaren funtsezko jarduera. Sare sozialetan ere lan egingo dugu, webgunea iragartzeko leku egokiena iruditzen baitzaigu.